**162/2024 Ebazpena, otsailaren 13koa, Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearena, hutsik dagoen Goi-mailako Teknikari Juridiko lanpostu baterako deialdia egiten duena prozedura hauen bidez: aldi baterako barne-sustapena erakundean, zerbitzu-eginkizunak, erakundeen arteko aldi baterako barne sustapenena Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen abenduaren 18ko 235/2007 Dekretuaren 79. artikuluak, 2007-2009 urteetarako lan baldintzei buruzko Akordioaren Bitariko Batzorde Paritarioaren Akordioak eta Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko erabakiak ezarritakoari jarraiki.**

**Destinoa:** Donostialdeko ESIko Langileen Zuzendaritzako Arlo Juridikoa.
**Hizkuntza eskakizuna:** 3 HE derrigortasun data: 2010-06-01

**Baldintzak:** Eskabideak aurkezteko azken egunean bete beharko dira eta agiri bidez egiaztatuko dira, CVaren aplikazioan baliozkotutzat jasota ez badaude.

**<u>Erakundean edo erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat baldintzak (agirien bidez egiaztatu beharko dira):</u>**

- Osakidetzako zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionario, estatutupeko langile edo lan-kontratuko langile finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den titulazio-maila bereko edo beheragoko beste kidego batekoa izatea.
- Hautatutako kidego berean ez izatea karrerako funtzionario edo estatutupeko langile finko izendapena, edo lan-kontratu finkoa, izendapen edo kontratu horrekin lotuta duten administrazio egoera edozein izanda ere.
- Donostialdeko ESIra atxikita egotea plaza batekin, erakunde horretan aldi baterako barne-sustapena egiteko. Aukeratu denaz bestelako zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea, erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 18ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea, bai eta deitutako azken EPEn kategoriaren deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako titulazio-baldintzak ere.
- Kidego bereko aldi baterako barne-sustapenean badago, etenik gabe urtebete baino gehiago egoera horretan egon da.

**Resolución 162/2024, de 13 de febrero, del Director Gerente de la OSI Donostialdea para la convocatoria de un puesto de Técnico Superior Jurídico que se encuentra vacante, mediante promoción interna temporal en la organización/ comisión de servicios/ promoción interna temporal entre organizaciones, de conformidad con lo establecido por el artículo 79 del Decreto 235/2007, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza - Servicio Vasco de Salud, en el Acuerdo de la Comisión Mixta Paritaria del Acuerdo de condiciones de trabajo 2007-2009 y en el Acuerdo de Consejo de Administración de Osakidetza de 9 de mayo de 2011.**

**Destino:** Área Jurídica de la Dirección de Personas de OSI Donostialdea
**Perfil lingüístico:** PL 3 con fecha de preceptividad vencida (01/06/2010)

**Requisitos:** Deben cumplirse el último día de presentación de solicitudes y se acreditarán documentalmente, salvo que consten como validado en la aplicación de CV.

**<u>Para las solicitudes de Promoción Interna Temporal en la organización de servicios o entre organizaciones de servicios, se deberá acreditar documentalmente los siguientes requisitos:</u>**

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicio de Osakidetza.
- Estar en servicio activo y pertenecer a otra categoría del mismo nivel de titulación o de nivel inferior que aquélla a la que se opta.
- No tener en la misma categoría a la que se opta nombramiento como funcionario de carrera o personal estatutario fijo, o contrato laboral fijo, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentren en relación con dicho nombramiento o contrato.
- Estar adscrito con plaza en propiedad a la OSI Donostialdea para la promoción interna temporal en esta organización. Estar adscrito a una organización de servicios distinta de aquella a la que se opta para el caso de la promoción interna entre organizaciones.
- Estar en posesión de la titulación establecida en el Decreto 186/2005 de 19 de julio, que regula los puestos funcionales del Ente Público Osakidetza y del resto de requisitos de titulación exigidos en las bases de la convocatoria de la categoría en la última OPE convocada.

- Si está en promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en esa situación.

**Zerbitzu eginkizunetako eskatzaileentzat baldintzak (agirien bidez egiaztatu beharko dira):**

- Osakidetzako zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkoa izatea, edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko finkoa izatea, Ekonomiako Goi-mailako Teknikariaren kidegoan/lanpostu funtzionalean.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta interesdunak jabetzan duen plaza ez den edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita ez dagoen beste zerbitzu-erakunde batean lanpostuak betetzeko eskabidea egitea.

**Para las solicitudes de comisión de servicios, se deberá acreditar documentalmente los siguientes requisitos:**

- Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicios de Osakidetza o funcionario/a de carrera o estatutario fijo del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud de la categoría/puesto funcional de Técnico Superior Económico.
- Estar en servicio activo y efectuar solicitud para la cobertura de puestos en Organización de servicios distinta de la que la persona interesada tenga plaza en propiedad o se encuentre adscrito por reingreso provisional al servicio activo.

**Baloratu beharreko ezagutza espezifikoak**

- Ezagutza eta esperientzia juridikoa izatea giza baliabideen eta lan-harremanen hainbat arlotan, hala nola txosten juridikoak egitea, ebazpenak egitea, diziplina-espedienteak izapidetzea, eta langileen arloko kaltegarritasun-prozedurak eta beste administrazio-prozedura batzuk egitea.
- Formakuntza eta esperientzia SAP Gizabide-Giza Baliabideak moduloan.
- Arlo hauetan ezagutza eta esperientzia izatea: administrazio publikoko bateraezintasunak, kontratazioaren kudeaketa, ordainsari-sistema eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren lan-baldintzak, bai eta langileen arloko beste esparru batzuetakoak ere.
- Esperientzia langileak hautatzeko eta hornitzeko organoetan.
- Interesgarritzat jotzen diren eta lanpostuari balioa gehitzen dioten merezimenduak aurkeztu ahal izango dira.

Ezagutza espezifikoak agiri bidez egiaztatu ahal izango dira, CVaren aplikazioan jasota ez badaude.

**Conocimientos específicos a valorar**

- Conocimientos y experiencia a nivel jurídico en diferentes ámbitos de recursos humanos y relaciones laborales, en funciones como: elaboración de informes jurídicos, realización de resoluciones, tramitación de expedientes disciplinarios, realización de procedimientos de lesividad y de otros procedimientos administrativos en materia de personal.
- Formación y experiencia en SAP Módulo Gizabide-RRHH
- Conocimiento y experiencia en materia de: incompatibilidades en la administración pública, gestión de la contratación, sistema retributivo y condiciones laborales de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, así como, de otros ámbitos propios en materia de personal.
- Experiencia en órganos de selección y provisión de personas.
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño del puesto de trabajo.

Los conocimientos específicos podrán acreditarse documentalmente, salvo que consten en la aplicación de CV.

**Baremazioa**

Zerbitzu-eginkizunen kasuan:

- Egindako zerbitzuak, kidego honen azken lekualdatze lehiaketako deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

**Baremación:**

En caso de Comisión de Servicios:

- Servicios prestados en los términos de las bases de la convocatoria del último concurso de traslados de esta categoría.

- Euskararen ezagutza-maila, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

- Nivel de conocimiento de euskera de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 67/2003 de 18 de marzo de normalización del uso de euskera en Osakidetza.

Aldi baterako barne-mugikortasunaren kasuan:

- Oposizioaldia (100 puntu gehienez). Amaitutako azken EPEari dagozkion aukeraketa probetako oposizioaldian izangaiek lortutako puntuazioa hartuko da kontuan.
- Lan-esperientzia (80 puntu gehienez).
- Euskararen ezagutza-maila, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

En caso de Promoción interna

- Fase de oposición (máximo 100 puntos). Se tendrá en cuenta la puntuación obtenida por los aspirantes en la fase de oposición de la última OPE finalizada.
- Experiencia Profesional (Máx. 80 puntos)
- Nivel de conocimiento de euskera de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 67/2003 de 18 de marzo de normalización del uso de euskera en Osakidetza.

**Eskabideak non eta noiz aurkeztu:**

Donostialdeko ESIko Langileen Zuzendaritzan (Begiristain Doktorea Pk, z.g. 20014 Donostia).

Eskabideak aurkezteko epea **20 egun baliodunekoa** izango da ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Lehentasun-ordena**

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da, betiere ezagutza eta profil espezifikoak egiaztatzen badira:

1. Aldi baterako barne-sustapena erakundean. Sistema horren bidez lanpostua bete ezin bada, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
2. Zerbitzu-eginkizunak. Sistema horren bidez lanpostua bete ezin bada, hurrengo zenbakian aurreikusitakora joko da.
3. Erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

**Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

- Titulazioa (CVn agertzen ez bada).
- Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuen ziurtagiriak (CVn agertzen ez badira).
- Euskararen ezagutza egiaztatzeko titulazioa (CVn agertzen ez bada).
- Lanpostu honetan aritzeko balioa eransten duten eta interesgarritzat jotzen diren merezimendu guztiak aurkez daitezke.

**Prestación de solicitudes**

En la Dirección de Personas de la OSI Donostialdea (Pº Dr. Beguiristain s/n, 20014 Donostia/San Sebastián).

El plazo de presentación será de **20 días hábiles** a partir del siguiente al de la publicación.

**Orden de Prioridad**

El orden de prioridad para la cobertura del puesto siempre que se acredite los conocimientos y perfil específicos será el siguiente:

1. Promoción Interna Temporal en la organización. En el supuesto de que utilizando este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto el número siguiente.
2. Comisión de Servicios. En el supuesto de que utilizando este sistema el puesto no se pudiera cubrir, se acudirá al previsto el número siguiente.
3. Promoción Interna Temporal entre organizaciones.

**Documentación a aportar junto con la solicitud**

- Titulación (que no conste en el currículum vitae)
- Certificado de servicios prestados fuera de Osakidetza (que no consten en el currículum vitae)
- Titulación acreditativa del conocimiento de euskera (que no conste en el currículum vitae).
- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto de trabajo.

**Balorazio batzordea**

Balorazio Batzordea eratuko da:

- Langileen Zuzendaritza (Lehendakaritza)
- Langileen Zuzendariordea.
- Donostialdeko ESIko Pertsonaleko Arlo Juridikoko Administrazio eta Kudeaketako Atalburua.

Epaimahaiak baloratuko du interesdunek aurkezten duten dokumentazioa eta izangaiak deitu ahal izango ditu elkarrizketa egiteko, egokitzat jotzen badu. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

**Ebazpenaren aurkako errekurtsoak:**

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Comisión de valoración**

Se constituirá una Comisión de valoración, presidida por la Dirección de Personas de OSI Donostialdea e integrada por la Subdirectora de Personal y la Jefa de Sección de Administración y Gestión del Área Jurídica de personal de OSI Donostialdea

Se valorará la documentación aportada por los interesados, pudiendo acordar la realización de una entrevista personal con aquellos candidatos que lo estimen oportuno. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

**Recursos contra la resolución**

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

**Donostian, 2024ko otsailaren 13an.**
En San Sebastián, a 13 de febrero de 2024

Osakidetza
DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

**ZUZENDARI GERENTEA** / DIRECTOR GERENTE
E.: Langileen zuzendaria / P.D. La Directora de Personas
**(226/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)** / (Resolución 2266/2022 de 13 de diciembre)

**Izpta.**/Fdo.: **María Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO**